

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Errenta-kanpaina ostegun honetan hasiko da Internetez eta hilaren 20an, aurrez aurre

Ostegun honetatik aurrera kontsulta daitezke 'sarean' 240.000 bat zergadunen 180.000 aitorten-proposamen

Martes, 05 de abril de 2016

Ostegun honetan, hilak 7, hasiko da Nafarroan pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ondarearen zerga ordaintzeko [2015eko kanpaina](#). Ekainaren 24ra arte aktibo izango da eta, edizio honetan, bi data adierazgarri daude: osteguna, hilak 7, Internet bidez aitortenak aurkezteko hasiera-eguna, eta asteazkena, hilak 20, Ogasuneko bulegoetan edo erakunde laguntzaileetan aurkezteko hasiera-eguna.

Zehazki, ostegunean, apirilak 7, Ogasunak Interneten (www.navarra.es helbidean), 239.885 zergadunen 179.058 aitorten-proposamen argitaratuko ditu. Ogasunak osatu dituen jakiteko, NAN zenbakia sartu beharko da soilik. Edukia eskuratu nahi izanez gero, PINaren zenbakia behar da ere (aurreko urteko aitortenari erantsitako pasahitza). Proposamen horiek dagozkien etxeetara paperean igorriko dira hilaren 15erako.

Ostegun honetan ere aktibatuko da Ogasunaren bulego birtuala navarra.es helbidean; haren bidez, aitortenak sarean aurkeztu ahalko dira.

Aurkezpen fisikoa apirilaren 20tik ekainaren 24ra egingo da, bi bide erabiliz: [18 erakunde laguntzaile](#)k osatutako sarea (arreta emateko 1.300 puntu) eta Ogasunaren sei bulegoak.

Nafarroako Gobernuak sarea aukeratzen dutenentzat –Iruña, Barañain, Burlata, Lizarra, Tafalla eta Tuterako bulegoak– beharrezkoa da aurretiaz hitzordua eskatzea astelehenean, apirilaren 18tik aurrera. Hori egin dezakete navarra.es helbidean edo 948 505 505 eta 948 505 506



Astelehenean aurrera (apirilak 18) aurretiazko hitzordua eska daiteke Ogasunaren bulegoetan.

telefono-zenbakietara deituta.

Astelehenean, apirilak 18, itzultzeko ateratzen diren aitorten-proposamenak ordainduko dira. Kobrantzei dagokienez, Ogasunari ordaintzea ateratzen den aitorten-erako, uztailaren 1ean, astelehena, eta azaroaren 21ean, astelehena, egingo dira.

Gogora ekarri behar da, Ogasunak zergeri buruzko zalantzak argitzen dituela 948 505152 telefono-zenbakira deituta astelehenetik ostiralera 08:30etik 17:30era (NAN eta PINa beharrezkoak dira). Eta bere [webgune](#)an sareko dozena bat izapide eskaintzen ditu (PINaren kudeaketa, aitortenak inprimatzea...).

Komunikazio-kanpaina

"Gure konpromisoarekin, piezak bat etortzen dira" da aurtengo komunikazio-kanpainaren goiburua eta, haren bidez, ondorengo ikusarazi nahi da: herritarrek gastu publikoei eusteko egindako ahaleginak guztiontzako onura dakarrela, Mikel Aranburu kontseilariak prentsaurrekoan azpimarratu duenez. Horretarako, osasun eta hezkuntzako bi irudi hautatu dira, Nafarroako Ospitalegunea eta Unibertsitate Publikoa, ongizate-sistemaren zutabeak direnak.

Data adierazgarriak zabaltzeko eta kontribuzioaren garrantzia azpimarratzeko, Nafarroako Gobernuak 65.000 euro inbertituko du eguneroko prentsan (Diario de Navarra, Diario de Noticias, Gara y Berria), tokikoetan (dozena bat aldizkari) eta Nafarroako irrati-etxeetan (SER, Cope, Onda Cero, Euskalerrria Irratia eta Xorroxin).

Aitorten-proposamenekin zer egin

Ogasunak emandako aitorten-proposamenak urtero aurkeztutako aitorten % 50 inguru dira.

Aitorten-proposamenak jasotako pertsonen, ados ez badaude, beste aitorten bat egin beharko dute bulego birtualaren bidez edo fisikoki (erakunde laguntzaileen sarea edo Ogasunaren bulegoak). Ados badaude, ez da urratsik egingo.

Itzultzeko proposamena bada, Ogasunak zenbatekoa apirilaren 18tik aurrera sartuko du. 120.700 proposamen inguru sartzen dira kategoria horretan, eta 71,9 milioi euro itzuliko dela aurreikusten da.

"Ordaintzea" egokitzen bada, Ogasunak zenbatekoa bi ordainketetan helbideratuko du (% 50 bakoitza), uztailaren 1ean, ostirala, eta azaroaren 21ean, astelehena. 50.000 bat proposamen daude egoera horretan (36,6 milioi euro). Beste 9.600 bat aitortenek zero kuota dute.

Aitorpena nork aurkeztu behar duen

PFEZ aitorpena egiteko betebeharra dute 11.250 euro gordin edo gehiagoko lan-errendimenduak dituztenek; kapital higigarriko errendimenduak eta ondarearen gehikuntzak dituztenek, 1.600 euro gordin edo gehiagoko atxikipenen mende daudenak; eta beste errenta batzuk jasotzen dutenak (enpresaburuak eta profesionalak, errentatzaileak), haren zenbatekoa alde batera utzita.

Iazko kanpainan, Ogasunak 325.395 PFEZ aitorpen kudeatu zituen, 472.547 aitortzaileri eragiten ziena. Zerga horren bidez 1.519,21 milioi euroko kuota osoa jaso zuen, eta 1.326,6 euroko kuota likidua (itzulpen gutxiagoren diru-sarrerak).

Aitortzaileen % 50,1 gizonezkoak ziren eta Ogasunak jasotzen duen kuota osoaren % 65 eman zuten. Emakumeak % 49,9 ziren, baina haietatik sortzen da kontribuzioaren gainerako % 34,7, eta horrek agerian uzten du errenta-maila txikiagoetan daudela.

Bestalde, Ogasunaren zerga-bilketa mamitsuena 18.000 eta 45.000 euro arteko oinarri "ertainetatik" dator: aitortzaileen % 25 eta jasotzen duen kuotaren % 51,2. Diru-sarrera handiagoko aitortzaileen pertsonetatik (% 4) dator kuotaren % 25 bat.

Horrez gain, beren ondarea aitortu behar dute zerga-kuota positiboa duten subjektu pasiboek, edo beren ondasun nahiz eskubideen balioa 1 milioi euro baino handiagoa bada. Ohiko etxebizitza salbuesten da 250.000 euroraino (titulartasun partekatuko ezkontide bakoitzeko), eta hura eskuratzeko dagoen zorra ez da kenduko.



Con nuestro compromiso, las piezas encajan
Gure konpromisoarekin, pieza guztiak bere tokian

Declaración de Renta y Patrimonio 2015
Del 20 de abril al 20 de junio de 2015 y desde el 7 de agosto al 15 de octubre de 2015
Zerga Errentaren eta Ondarearen Aitorpena 2015ko apirilaren 20tik ekainaren 15era
irailaren 7tik urriaren 15era bitartean

Consulta de impuestos de declaración desde el primer y el último momento y en el día que te guste.
Aitorpen argazkieraren burburatik aurrera 76. urteko eta 77. urteko murrizketak dituzten guk gure gaitasunak
erabiltzeko eta gure Ogasunak zerga-kuota osoa jaso dezakeen egunetan. Gure gaitasunak erabiltzeko eta gure Ogasunak
jasotzen duen kuota osoa jaso dezakeen egunetan. Gure gaitasunak erabiltzeko eta gure Ogasunak jasotzen duen
kuota osoa jaso dezakeen egunetan. Gure gaitasunak erabiltzeko eta gure Ogasunak jasotzen duen kuota osoa jaso
dezakeen egunetan. Gure gaitasunak erabiltzeko eta gure Ogasunak jasotzen duen kuota osoa jaso dezakeen egunetan.

HEZKUNTZA OGIKOR
OGASUNA
Nafarroako
Gobernua

2015ean, Ogasunak 1.520 milioi euro inguru jaso zituen PFEZ bidez.